

GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

168. INFORMAZIO BULETINA

> 2021ko urria

GIPUZKOA

NABARMENDU BEHARREKOA

> Eusko Jaurlaritzak 3 proiektu estrategiko eraldatzaile eta enblematiko definitu ditu, zentralak eskatuta, EBren Next laguntzei begira: Gipuzkoako hainbat ekimen biltzen dituzte, hala nola MUBIL, Living Lab, ZIUR, Quantum edo GANTT

Urriaren 19ko Gobernu Kontseiluan erabaki da 3 makroproiektu edo multzo horiek bidaltzea, gobernu zentralak egindako eskaerari erantzuteko, hau da, jarduera ekonomikoaren izaera eraldatzailea eta traktorea duten autonomi erkidegoetako mailako ekimenak identifikatzeko eskaerari erantzuteko.

«Basque Mobility» ren kasuan, alde batetik, digitalizazioa, mugikortasun konektatua, autonomoa eta seguruaren azpiatala egongo da, eta BasqueCCAM proiektua izango da gainerakoak koordinatu eta bilduko dituen ekimen nagusia, baina, gainera, Lurralde Historiko bakoitzak espezializazio osagarri batekin lagunduko du. Gipuzkoako foru errepide sarean garraio sistema adimendunen Living Lab bat jarriko da martxan, mugaz haraindiko mugikortasun adimenduna, koEragilea, konektatua eta autonomoa lortzeko.

Basque Mobility-ren barruan mugikortasun jasangarriaren azpiatala ere egongo da, Basquevolt deituz ekimen nagusiari. Mubilek testeatzeko laborategi aurreratu eta teknologikoki oso puntakoa jarriko du energia biltegiratzeko arloan, Basquevolten pean bildutako eragile guztien eskura; laborategi horrek koordinatu eta bilduko ditu gainerakoak estatu-solidoko baterien fabrikazioari ekiteko, 4.0 industria, digitalizazioa, birziklapena eta baterien bigarren bizitza bultzatzeko.

Bigarren multzo handia, berriz, «Datuen ekosistema» gisa izendatzen da, eta Euskadik dagoeneko tresna batzuk garatu ditu industrian digitalizazioa sustatzeko; horien artean, Gipuzkoan ZIUR gunea dago, zibersegurtasunezkoa. Hemen sartzen dira, halaber, zibersegurtasuneko beste zentro handia (BCC), adimen artifizialeko BAIC zentroa, lurralde osoko konektibitate ultra-azkarra, I+G arloko BRTA aliantza, BDIH hub digitala eta industria aurreratuko BIND 4.0 estrategia.

Hirugarren multzoa osasun-arlokoa da, eta BAT (Basque Advanced Therapies) du izena. 4 lerro ditu, eta horietatik 3 lurralde historiko bati lotuta daude; Gipuzkoaren kasuan, GANTT (Gipuzkoa Advanced New Therapies Territory). Eusko Jaurlaritzak, BATekin lotutako agenteen sareaz eta autonomien arteko lankidetzaz gain, Foru Aldundiekin dagoena nabarmentzen du.

(informazio +)

> Aldundiak konputazio kuantikoan diharduten erakundeei eman dizkie Gipuzkoa Next laguntza berriak, EBren Next Generation erresilientzia-planerako proiektu finantzagarriak aurkezten dituen Euskadi Next planaren ildotik

Aldundiak teknologia kuantikoen aldeko apustua egin du I+G+Bko 4 proiekturi laguntza emanez, eta 435.000 bideratu ditu DIPC, MPC, CIC nanoGUNE eta Tecnunerako.

Gipuzkoa teknologia kuantikoetan erreferente bihurtzeko apustua indartzeko, Aldundiak Gipuzkoa Next izeneko laguntza-lerro berria jarri du abian, konputazio kuantikoari lotutako proiektuak laguntzeko. Laguntza horiek lehen aldiz eman dira Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sareari laguntzeko Programaren barruan, lurraldeko ikerkuntza-ekosistema indartzeko eta lurraldearen garapenerako potentzial handia duen eremu batean industria berri baten oinarriak ezartzeko, eta Euskadi Next berreskuratzeko, eraldatzeko eta erresilientziarako euskal apustuan jasotzen diren arloak bultzatuko ditu hurrengo deialdietan.

Laguntza horiek lurraldean ekosistema bat sortzeko egindako aurrerapenak indartzera datoz. Horrela, Diputazioa Gipuzkoa Quantum proiektuaren garapenaren buru izan da. Proiektu horren helburua da, DIPC eta Multiverse beraren parte-hartzearekin, lurraldea erreferentetzat hartzea konputazio kuantikoan oinarritutako teknologietan. Gainera, duela gutxi, foru-erakundeak eta Eusko Jaurlaritzak jarduera-protokolo orokor bat sinatu dute, Gipuzkoan Teknologia Kuantikoen Polo bat garatzeko, Donostian kokatuko dena.

(informazio +)



> Hasi dira MUBILen azken egoitzarako izapideak, proiektua guztiz osatuta dagoelarik, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatzen du guztiz bat etortzeagatik EBak pandemia ondorenerako emandako jarraibideekin

Urriaren amaieran, Aldundiak iragarri zuen Donostiako Udalak obra-lizentzia onartu zuela MUBILen (Mugikortasun Adimentsu eta Iraunkorrerako Zentroa) behin betiko egoitza eraikitzeko, Zubietako Eskuzaitzeta industrialdean. «Oso urrats garrantzitsua da MUBILen ibilbidean, behin betiko egoitza gauzatzetik gertuago baikaude», ziurtatu du Eider Mendoza bozeramaileak. Aurreikuspenen arabera, hurrengo urratsa azaroan emango da, Aldundiko Gobernu Kontseiluak proiektuari argi berdea ematen dionean, eta obrak 2022ko lehen hilabeteetan hasiko dira.

Guztira, MUBILek Eskuzaitzetan duen egoitzak ia 10.000 metro koadroko espazioa izango du. Eraikin nagusiak 4.900 metro koadro izango ditu, lehen laborategiak 2.200 metro koadro eta bigarren eta hirugarren laborategiek beste 2.500 metro koadro. “Horrez gain, Eskuzaitzetan beste 30.000 metro koadro gordeko dira mugikortasun berriaren eremuko eragileak erakartzeko eta eremu horretan erreferentzia-polo bat eraikitzeko”, Mendozak gogorarazi duenez.

Foru Aldundiko arduradunak azaldu duenez, MUBIL zentroa guztiz osatuta dagoen proiektua da, eta biharko Gipuzkoako ekonomia eraikitzeko apustu nagusietako bat da. Era berean, guztiz bat dator Europar Batasunak pandemiaren ondorengo agertokirako ezarritako jarraibideekin. “Etorkizunari begira, funtsezko zeregina du Gipuzkoa berdeago, digitalago eta lehiakorrago bat eraikitzeko prozesuan, eta, beraz, Etorkizuna Eraikiz-ek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak esku artean dituzten proiektu garrantzitsuenetako bat da. MUBILekin, anbizioz jokatuko dugu, espero dugu funtsezko rola izatea Gipuzkoa eta Euskadi eremu horretako erreferenteetan kokatzeko”, azpimarratu du.

(informazio +)



> Lehendakaria, EBeko zenbait estatuetako diplomazialariak, Batzordeko kide bat eta Donostiako ohorezko kontsul bat topaketa batetan izan dira, eta Chillida Leku, Basque Culinary Center, Tknika, Miramon eta Viralgen bisitatu dituzte

Iñigo Urkullu lehendakariak Europar Batasuneko estatu kideetako Madrilerako diplomatikoei harrera egin die, eta ongietorria eman die Euskadira.

Lehendakariarekin izandako harreraz gain, agendaren arabera Eusko Legebiltzarreko lehendakari Barkatxo Tejeriarekin bildu ziren, eta Gernikako Juntetxera, Chillida Leku museora eta Basque Culinary Centerrera bisitak egin zituzten. Arlo teknologikoan, Tknika Lanbide Heziketako Ikerketa Aplikatuko Euskadiko Zentroa, Miramongo Parke Teknologikoa eta terapia genikorako bektore biralen ekoizpenean espezializatutako Viralgen enpresa bioteknologikoa ezagutzeko aukera izan zuen ordezkaritzak.

Topaketan Europako 21 herrialdetako ordezkariak izan dira, Robert Krmelj Esloveniako enbaxadorea buru dela, Europar Batasuneko txandakako presidentetza duena. Esloveniak Donostian duen ohorezko kontsulak ere parte hartu du bileran, eta Europan gaur-gaurko gaiak bateratzeko balio izan du, hala nola pandemia osteko susperraldi ekonomikoa eta soziala, Europako Funtsen kudeaketa, trantsizio energetikoa eta klima-aldaketa.

Bileraren aurreko hitzaldian, Urkullu lehendakariak nabarmendu du Euskadik bokazio europarra duela; eta, Europaren etorkizunaren ikuspegiari egiten dion ekarpenaren erakusgarri, berretsi egin du Euskadik Europa sozial eta lehiakor, ireki, solidario eta iraunkorraren alde egiten duen apustua; Europa politiko, demokratiko eta anitza, non Euskadik bere espazio propioa izango baitu. «Euskadi bazkide sinesgarria, eraikitzailea eta fidagarria da Europarentzat», gaineratu du.

Urkullu lehendakariak 2013tik hona Europako talde diplomatiko horrekin egin duen bosgarren lan-bilera izan da.

(informazio +)

> Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak, ekiolek eta Oronak Eusko Jaurlaritzak Tabakaleran duen Basque Green Deal Gunean parte hartu dute, EBren Itun Berdearekin bat eginez

Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak, Tabakalerarekin batera, klima aldaketari aurre egiteko konpromisoa berretsi dute, bakoitzak bere eskumenetatik ekintza eta neurri zehatzak bultzatzeko akordio berdea bere eginez.

BGD Guneak ateak ireki zituen Donostiako Tabakaleran, Klima Aldaketaren Aurkako Nazioarteko Egunean.

Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua, Eneko Goia Donostiako alkatea, Jose Ignacio Asensio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako diputatua eta Edurne Ormazabal Tabakalerako zuzendari nagusia izan ziren inaugurazioaren protagonistak.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik, Asensiok gogora ekarri ditu leloa, «Aire osasungarria, planeta osasungarria», eta Naturklimaren txostena, trafikoa airearen kutsadura-gune handienetako bat dela baieztatzen duena. Halaber, ohartarazi zuen datozen 30 urteetan gipuzkoarren erdiek baino gehiagok inpaktu larriak jasango dituztela berotze globalaren ondorioz.

Eneko Goia Donostiako alkateak gogorarazi du Donostiak "bere ibilbide-orria eratuta" duela Klima 2050 Planarekin, eta plan horrek ezartzen dituela klima-aldaketaren aurkako borrokan udalen jarduna gidatuko duten jarduerak, lehentasunak eta irizpideak.

Azkenik, Edurne Ormazabal Tabakalerako zuzendariak nabarmendu du “NEW EUROPEAN BAUHAUS Europako Batzordearen ekimen berrian jarrera aparta lortu dugula”.

Lotutako jardueren artean, ekiolak izeneko energia-kooperatiben aurkezpen-konferentzia bat izan zen, baita garapen iraunkorrean eredugarria den Orona enpresa bat bisitatzea ere.

(informazio +)

> Klimaren aldeko Glasgowko COP26aren aurreko ekitaldiak: Asteklima astearen barruan ikusgai da EBeko LIFE Urban Klima 2050 programaren euskal proiektua, Donostia, Zarautz, AZTI, Tecnun, Naturklima eta beste eragileak barne dituena

"Urban Klima 2050: eragile anitzeko lankidetza Euskadin egokitzapena finantzatzeko" nazioarteko jardunaldiak Europako LIFE Urban Klima 2050 proiektuaren aurrerapen nagusiak ezagutzera eman zituen. Proiektu hori Euskadiko klima-ekintzako ekimenik handiena izango da 2025era arte.

Ekitaldia Euskadiko Klimaren eta Energiaren Astearen bigarren edizioko jarduera nagusietako bat izan zen.

Jardunaldia PreCOP26 All4Climate-Italy 2021en programa ofizialaren parte ere bada, aurten Glasgown urriaren 31tik azaroaren 12ra egingo den Klimaren Goi-bileraren atarikoa.

Mahai-inguru batean, IHOBEk, BC3k eta Neikerrek parte hartu zuten Donostiako Udaleko Ingurumen arloko Ana Juaristirekin, Urban Klima 2050 proiektuaren eredua eragile anitzeko lankidetzaren adibide gisa azalduz.

LIFE Urban Klima 2050 proiektuak jarduera pilotuak garatzen ditu hiru euskal hiriburuetan (Bilbo, Donostia eta Gasteiz), baita beste lau udalerritan ere: Bakion, Bermeon, Gernika-Lumon eta Zarautzen. EAEko 7 udal horiek Urban Klima 2050 partzuergo bultzatzaileko kide dira. Ihobe sozietate publikoa da partzuergo horren burua, erakunde koordinatzailea den aldetik, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailekin, URA Euskal Agentziarekin, EVE-Energiaren Euskal Erakundearekin, hiru foru-aldundiekin, bost zentro teknologiko eta zientifikorekin (AZTI, BC3, Tecnalia, Neiker eta Tecnun) eta Naturklima Fundazioarekin batera.

2021era arte Gipuzkoan izandako aurrerapen nagusien artean honako hauek nabarmentzen dira: olatu eta mareen efektu konbinatuak Zarauzko itsas frontean sortzen dituen kalteak minimizatuko dituzten alternatibak identifikatzeko diagnostiko- eta ebaluazio-txostena; udalerri horretako itsas pasealekurako proposamen bat; Igeldo mendian (Donostia) Kontxako eta Ondarretako hondartzak monitorizatzeko kostaldeko bideometria sistema bat instalatzea; Errekatxulo errekastoaren ertzak hobetzeko esku-hartzeak (Donostia); edo Donostiako 4 puntutan panel fotovoltaikoak jartzea autokontsumorako.

(informazio +)

> Ahaldun Nagusiak gogorarazi du Gipuzkoak 72,5eko Genero Berdintasunaren Europako Indizea lortu zuela, Suediak, Danimarkak, Frantziak edo Finlandiak soilik gaindituta, nahiz eta datu txikiagoa izan botere ekonomikoaren atalean

Markel Olano ahaldun nagusiak gogorarazi duenez, Genero Berdintasunaren Indizea 2020an argitaratu zen lehen aldiz, Gipuzkoarako neurketa propioekin, eta gure lurraldea 72,5 punturekin kokatzen du arlo horretan, guztizko berdintasunari dagokion balioa 100 delarik. Zifra horren arabera, Gipuzkoa Europako batez bestekoaren gainetik dago eta, berdintasunari dagokionez, herrialde aurreratuenen atzetik: Finlandia (73,4), Frantzia (74,6), Danimarka (77,5) eta Suedia (83,5). Hala ere, gogorarazi du botere ekonomikoaren eremuan agertzen dela gehien genero-desberdintasuna, eta atal horretan indizea 41,9 puntukoa dela.

Horren arrazoia izan da ahaldun nagusiak Kaiku abeltzaintza kooperatibako ordezkariekin izan duen bilera, erabakitzeko organoetan emakumeen parte-hartzea sustatzeko egiten ari den urratsen berri izateko. Gizarte gisa gainditu gabeko ikasgaietako bat da, eremu sozioekonomikoan berdintasuna sustatzea, bereziki emakumeek zuzendaritza-kontseiluetan presentzia aktiboa izatea, ahaldun nagusiak adierazi duenez. Berretsi egin du Aldundiak konpromisoa hartu duela beren kulturan, estrategian eta kudeaketa-ereduan berdintasunerantz urrats eraginkorrak egiten ari diren erakundeei irmo laguntzeko.

(informazio +)

> Bide Azpiegituretako Foru Departamentuak berretsi du konpromisoa EBk erabileraren araberako ordainketa-ereduaren onespenarekin, bai eta bere zuzentarauak Kanpazarena bezalako erreformetan kontuan hartzearekin ere

«Ebidentziak dio errepideak mantentzeko eta ingurumena zaintzeko, emisio kutsagarriak murrizteko eta politika jasangarriak ezartzeko Europako politikak erabileraren araberako ordainketa behar duela», adierazi du Aintzane Oiarbide foru diputatuak, eta gaineratu du Europar Batasuneko estatu gehienetan urteak daramatzatela ahalmen handiko errepideetan erabiltzeagatiko ordainketarekin, eta Espainia ere behartuta dagoela autobide eta autobietan ezartzera 2024rako. Oiarbidek esan duenez, gu izan gara Europako Zuzentaraua ezartzen lehenak, eta horrek esan nahi du garraioaren sektoreak erabileragatik ordaindu behar duela, Europako gainerako herrialdeetan egiten den bezala.

Gure ustez, hori da modurik bidezkoena errepideen mantentze-lanak finantzatzeko eta kostu guztia gipuzkoarren poltsikoari bakarrik ez ordaintzeko. Bidezkoena da erabiltzen duenak ordaintzea, gipuzkoarra edo kanpotarra izan, Europako zuzentarauek adierazten duten bezala. Gogoratu behar da, 1999/62/EE Zuzentarauaren arabera, Batzordeari bidali behar zaiola Gipuzkoako ahalmen handiko sare osoan erabileragatiko ordainketa nola ezarriko den azaltzen duen informazioa, sare horrek bere irizpena eman dezan. Hala, foru-arau berria txosten horren mende egongo da.

Diputatuak azpimarratu nahi izan du, halaber, ezarritako bidesariak eta planifikatutakoak Europar Batasunak bi aldiz egiaztatu eta aldeko irizpena eman duela; izan ere, Europar Batasunak, zuzentarauen bidez, errepideko garraioa erabiltzeagatiko ordainketa arautzen du. Duela 11 urte Gipuzkoan gainditu zelarik honen eztabaida politikoa, bidesariak errepideak finantzatzeko modurik bidezkoena -eta EBren bermea daukatena- direla sinetsita, Aldundiak erabaki du aurreproiektu berri bat aurkeztea, Gipuzkoako Batzar Nagusiek foru arau berri bat onar dezaten, auzitegien epaiak bete eta bidesari hori ezartzeari segurtasun juridiko handiagoa emateko, erabiltzaileei ziurtasuna emanez.

Bestalde, Arrasate eta Elorrio arteko Kanpazarko errepidea hobetzeko proiektua aurkeztean, Gipuzkoa eta Bizkaia lotzeko tunel bat proposatzen zela adierazi zuen, baina lehen planteamendu hartatik Europako zuzentarauak aldatu direla, honako hau ezartzen dutela: "ez litzatekeela tunel bat izango, bi baizik. Tuneletako segurtasun-zuzentarauak, kasu honetan, tunel bat eskatzen du noranzko bakoitzean, eta, beraz, bi tunel egin beharko lirateke".

(informazio + - Foru Arauaren hastapena)

(informazio + - aurreko kanonaren indargabetzea)

(informazio + - Kanpazarreko birmoldaketa)

ESKUALDE POLITIKA ETA KOHESIO POLITIKA

> Gipuzkoako eta beste Euskadiko gazteriaren zenbait ordezkari, Akitania Berriko, Okzitaniako, Aragoiko, Andorrako, Nafarroako eta Kataluniakoekin batera, Gazteriaren Pirinioetako lehen Foroan parte hartu dute

Foroak proposatu du gazte-trukeak sustatzea, bai lan-arloan, bai kirol- edo kultura-arloan, bai eta mugaz gaindiko Pirinioetako parke bat sortzea ere.

Agurtzane Llano Eusko Jaurlaritzako Gazteriako zuzendariak Foroan nabarmendu du hizkuntzek duten balioa herri baten bizitzeko modua ulertzeko.

Euskadik hartuko du datorren abenduan Pirinioetako Lan Elkartearen lehendakaritza, Foroaren bultzatzailea.

Euskadiko gazteek parte hartu dute asteburu honetan Pirinioez gaindiko lehen Gazte Foroan. Irundik, Mungiatik, Trokonizetik, Bilbotik, Barakaldotik, Erandiotik, Gasteiztik eta Algortatik etorritako 19 eta 29 urte bitarteko lau neska eta sei mutil Huesca probintziako Biescas herrira joan ziren ostiralean, Agurtzane Llano Eusko Jaurlaritzako Gazteria zuzendariarekin batera.

(informazio+)

> Euskal partaidetza proaktiboa izan da Eskualdeen eta Hirien 19. Aste europarrean, Tknika eta Miguel Altuna Gipuzkoako LHko zentroak barne, iraunkortasunari eta prestakuntza dualari buruzko zenbait mintegitan

Euskadik proaktiboki parte hartu du aurten ere Europako erakundeek Eskualdeen eta Hirien Europako Astearen/EWRC2021 ekimenaren esparruan antolatutako jarduera eta foroetan. EBren Euskadiko Ordezkaritzak koordinatuta, eta 18. urtez jarraian hainbat euskal eragilek eta erakundek parte hartu dutelarik, EWRC2021 Europar Batasunaren foro nagusi gisa finkatu da, Europako eta munduko erronka nagusien aurrean eskualdeetako eta tokiz tokiko agintaritzen ahotsa kokatzeko, eta horietan eragiteko.

Iraunkortasunaren eta ikaskuntza-lantegietako lankidetzaren arloko etorkizuneko eskumenei dagokienez, LHko ikasleen zuzeneko parte-hartzearekin eta EARLALL sare europarraren koordinaziopean, eta Europako beste bazkide eta erakunde batzuekin batera, parte hartu zuten zenbait mintegietan bai Rikardo Lamadrid- Eusko Jaurlaritzako LHko Sailburuordetzako Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria, bai Iñigo Araiztegi- TKNIKAko Nazioartekotze zuzendaria, bai Miguel Altuna Zentroko ordezkari bat.

Euskadin bi gai horien inguruan beste bazkide batzuekin batera bultzatutako esperientzia eta ekimenak aurkeztu ziren, eta bereziki nabarmendu zen Lanbide Heziketaren ibilbidea Europako Batzordeak Europako beste erakunde batzuekin batera bultzatutako hezkuntza-bikaintasuneko ekimenetan, non Euskadi prozesuaren buru den. Nabarmendu behar da Euskadiko LHko ikasleek, eta zehazki Miguel Altuna Zentrokoek, bat egin zutela jardunaldiekin, eta streaming bidez jarraitu zituztela Europako eztabaidak.

(informazio+)

> Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdeak Donostian adostu du etorkizuneko erronkei lankidetzatik aurre egiteko ibilbide-orri berria

Lehentasunak Europako agendarekin eta Europako lurralde-lankidetzaren helburuekin lerrokatuta daude. Plan berria 5 ardatz nagusitan egituratuta dago, eta herritarren eta euroeskualdeko eragile sozial, ekonomiko eta instituzional guztien artean partekatutako proiektu baten topagune izateko asmoarekin sortu da.

Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdeak 2021-2027 Plan Estrategikoa onartu du, hurrengo zazpi urteetarako ibilbide-orri berria. Plan berriak indartu egiten du hiru lurraldeek etorkizuneko helburu eta erronkei aurre egiten jarraitzeko duten konpromisoa, eta lehentasunak Europar Batasunak trantsizio ekologiko, digital eta soziala bultzatzeko ezarritako helburuekin lerrokatuta daude. Euroeskualdearen sorreraren hamargarren urteurrenarekin eta Covid-19 pandemiak eragindako krisitik irtetearekin batera abiarazi zen, eta horren ondorioak nabaritu dira giza, osasun, gizarte, ekonomia eta emozio mailan.

Euroeskualdearen 2021-2027 aldirako Plan Estrategikoa berretsi egin da Euroeskualdeak Donostian egin duen Ezohiko Batzar Nagusian. Bertan, Euskadiren (gaur egun Euroeskualdearen buru dena), Nueva-Akitaniaren eta Nafarroaren ordezkaritzek hartu dute parte, Iñigo Urkullu lehendakaria, Alain Rousset presidentea eta María Chivite presidentea buru zirela, hurrenez hurren.

Aurkeztutako planak, halaber, Euroeskualdeak aurreko 2014-2020 Plan Estrategikoaren indarraldian sustatu eta garatu dituen jarduera eta ekimenen balantze xehatua jasotzen du. Bertan, lortutako lorpenak nabarmentzen dira eta hobetu beharreko eremuak identifikatzen dira.

Horrela, azken sei urteetan 140 lankidetza-proiektu baino gehiago onartu dira – 4 milioi euro guztira – Hezkuntzan, eleaniztasunean, kulturan, garapen iraunkorrean edo ezagutzaren ekonomian, eta 13 Partenariatu Estrategiko berretsi dira Euroeskualdeak abiarazitako proiektuen deialdietan lekurik izango ez luketen ekimenak garatzeko. Gainera, erakunde hori gero eta gaituagoa dago Europako funtsak erakartzeko, bereziki POCTEFAtik datorren finantzaketa.

(informazio+)

> Z-WasTEK proiektua berrikuntzan ari da birziklatutako karbono-zuntzezko konpositeekin, Hettich, Cidetec, Mariskone eta Fiber Gipuzkoako bazkideekin, Haziteken EGEFen Euskadirako 2014-20 Programa Eragilearen laguntzaz

Material horren fabrikazioan zentratuta, Z-WasTEK proiektuak bere fabrikazioan sortutako hondakin guztiak ezabatu nahi ditu kalitatea galdu gabe eta kostu lehiakorragoarekin. Ekimen honen helburua Zero Waste teknologia berriak garatzea da, kalitate handiko karbono-zuntz birziklatuz eta 3R erretxinaz (konpongarria, birziklagarria eta iraunkorra) eginda egongo diren konposite horiek fabrikatzeko. Material hori BRTAko kide Cidetec-ek patentatu du. Lortutako materialarekin, automobilgintzako eta trenbideko sektoreetarako prototipo berriak garatuko dira.

Proiektuaren buru Hettich (Aizarnazabal) da, eta proiektuaren helburua automobilgintzaren sektorerako 3R material konposatuan oinarritutako erakusle berritzaile bat diseinatzea eta garatzea da, karbono birjina eta birziklatutako zuntzak konbinatuz. Gainera, Cidetec Surface Engineering (Donostia) ikerketa zentroak eta Mariskone (Oiartzun), Fibertecnic (Gasteiz), Fiber Profil (Legazpi), Segula Technologies (Zamudio), Igestek (Derio), Maier (Gernika) eta Inkoa (Erandio) enpresek parte hartzen dute.

Mariskonek beste erakusle bat garatzea du helburu, autobus elektriko baten gurpil-estalki baten infusio-prozesuaren bidez, kimikoki errebalorizatutako karbono-zuntzen mat ehunarekin indartuta, ekoizpen-erreusetatik abiatuta.

Fiber Profilek bere piezen balioa handitzea bilatzen du, pultrusio bidezko profil berri bat garatuz gama altuko ibilgailuaren sektorerako, 3R konposite batean oinarritua karbono zuntz birjinak eta karbono zuntz birziklatuak konbinatuz.

(informazio+)

> Gipuzkoa partaidetzat daukan eta Pirinioez gaindiko Interreg POCTEFA programak lagundu duen ALERT proiektuaren balantzean 2021ean Berako sutean izandako lankidetza nabarmendu da, baita zazpi simulakro ere

ALERTen Gipuzkoako Foru Aldundiak, Nafarroako eta Aragoiko gobernuek eta Pirinio Atlantikoetako Suteen eta Sorospenaren Departamentuko Zerbitzuak (SDIS64) parte hartu dute.

Larrialdiko ekintzen 7 simulakro bateratuak Eugin (Nafarroa) egin dira proiektuak iraun duen 4 urteetan. Proiektuak esperientziak partekatzeko balio izan du eta 2021era arte luzatu zen pandemiaren ondorioz.

2021eko martxoan izan zen bere mugarririk nabarmenena, Berako sutea itzali zenean, lankidetzan lortua. Segurtasun-planoak ere egin ziren, mugako mendialdeetan elkarlanean.

'Alert' izenak 'Aurreratzea eta borrokatzea, mugaz gaindiko arriskuen aurkako espazio komun batean' esan nahi du, eta % 65 Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) finantzatu du, Interreg (POCTEFA 2014-2020) programaren esparruan.

Lehenengo simulazioan eraikin-barruko sute-maniobra bat egin zen: Gipuzkoako Foru Aldundiko Suhiltzaileek egin zuten SDIS64rekin eta Nafarroako Suhiltzaileekin batera. Beste batean, altuerako erreskate baten simulazioa egin zen Eugiko presan, SDIS64 Gipuzkoako eta Nafarroako suhiltzaileen laguntzarekin; hirurek ur-erreskatea egin zuten agertoki berean. Hiru agente horiek salgai arriskutsuen ibilgailu baten zirkulazio-istripu bat simulatzen lagundu zuten. Hiri-inguruneetan, aginte-postu aurreratuaren maniobra bat egin zen aipatutako hiru agenteekin, gehi Nafarroako Babes Zibila eta Larrialdiak. Aipatu lanpostuan, aipatu berri dugun proiektuko 5ek Aragoiko gobernuarekin kolaboratu zuten.

(informazio+)



> Andoaingo Udala Tokiko Gobernantzako Bikaintasunaren ELOGE zigilu europarra lortzeko aurkeztu da: Zigilu horrekin Europako Kontseiluak berrikuntza demokratikoa ere aitortzen du

Maider Lainez alkateak adierazi duenez, Europako Kontseiluaren onespenik handiena da Gobernantza eta berrikuntza demokratikoan bikaintasuna lortzen duten tokiko gobernuentzat.

Zigilu hori lortzeko, Udalak autoebaluazio bat egin du, betetze-maila neurtzeko 12 printzipiotan, Gobernantza onaren 97 adierazletan banakatuta, Europako Gobernantzaren funtsezko balioak adierazten dituztenak. Adibidez: hauteskundeak eta ordezkaritza eta partaidetza bidezkoak, eraginkortasuna eta efizientzia, irekitasuna eta gardentasuna, jokabide etikoa edo kontuak emateko betebeharra, besteak beste.

Ebaluazio horrez gain, inkestak egiten zaizkie Andoaingo herritarrei eta hautetsiei, emaitzak egiaztatzeko. Herritarrei zuzendutako inkesta https://www.andoain.eus/es/eloge webgunean zegoen eskuragarri, eta 12 galdera eta bete beharreko oinarrizko informazio bat zituen. Inkesta modu anonimoan bete zen udalaren webgunearen bidez.

(informazio+)

> Txekin programaren deialdi berria: enpresa sortzeko prozesuan enpresa-proiektuei laguntzeko, Europako Gizarte Funtsarekin batera finantzatuta

Programa horren % 50 Europako Gizarte Funtsak (EGIF) finantzatzen du, eta haren 2014-20 aldirako Euskadirako Programa Eragileak "Europako Gizarte Funtsak zure etorkizunean inbertitzen du" leloa nabarmendu du.

Enpresak eta enplegua sortzeko prozesuei, eta, zehazki, bideragarritasun-planei, laguntzea eta sustatzea helburu duten diru-laguntzak dira.

Onuradun izan daitezke Gipuzkoan erroldatutako pertsona fisikoak, enpresa-proiektuaren ideia bat dutenak eta Gipuzkoan abian jarriko direnak.

Pertsona edo talde sustatzaileari ideia heltzen eta Bideragarritasun Plana egiten laguntzearen ondoriozko gastuak diruz laguntzen dira, Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuak homologatutako erakundeen bitartez.

(informazio+)

> ORHI proiektuak nekazaritzako elikagaien ekonomia zirkularreko berrikuntza teknologikoak abiarazi ditu Euskadiko, Nafarroako, Pirinio Atlantikoetako eta Okzitaniako eragileekin, Interreg-POCTEFA programaren dirulaguntzekin ere

ORHI proiektu europarra frantziar eta espainiar estatuen mugaz gaindiko lurraldeko erakundeen partzuergo batek sustatzen du: Euskadi, Nafarroa, Pirinio Atlantikoak eta Okzitania. Interreg-POCTEFA programako ia 2 milioi euro izan ditu.

Proiektuak hainbat ekimen utzi zituen abian, nekazaritzako elikagaien sektoreko ekonomia zirkularrerako. Sinergiak eta irtenbide berritzaileak bultzatu ditu enpresetan. ORHI Europako Batzordeak eskualde-politikako ikuspegi eta adibide onenei emandako Regiostar sarietako «Urban Europe» kategoriako proiektu finalistetako bat izan da.

3 urtetan zehar, ORHIk enpresetara transferentzia berritzailea egiteko ahalmena duten 18 proiektu lagundu ditu, eta 7 dagoeneko ezarrita daude. Berritzen dituzten gaiak honako hauek dira: elikagaien bizitza luzatzea; biomaterialak; picometanizazioa (nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakin-gasa), edo mikrometanizazioa baserrietan.

ORHIk materia organikoa eta plastikoa izan ditu ardatz elikagaien balio-katean. Hasteko, eskualde bakoitzean erronka eta arazo komunak aztertu ziren, berrikuntza teknologikoak eta horiek konpontzeko negozio-eredu zirkularrak bilatzeko.

(informazio+)

> Eskualde arteko eta hiriarteko lankidetza Europan: Donostia Atlantic Cities Elkartearen buru da

Donostiako alkatea, Eneko Goia jauna, Atlantic Cities elkarteko presidente hautatu zuten, bere hautagaitza 2021eko irailaren 6ko Batzar Nagusian aurkeztu ondoren. Batzar hori Viana do Castelon (Portugal) egin zen aldi berean, eta online, testuingurua zela eta.

Presidente berriak gogor adierazi du lankidetzan lan egiteko nahia, sarea bultzatzeko eta Atlantikoko hirien erronka komunei aurre egiteko. Helburua da egungo proiektuak babestea eta etorkizunekoetan erabat inbertitzea, bereziki bazkide berriak bilatuz.

Hiri Atlantikoetako kideek bere hautagaitza goraipatu zuten eta bere konpromisoa oso ondo hartu zuten. Gumersindo Guinarte Santiagoko alkateordeak presidentetza berriari buruz esan zuen bezala, «Bere arrakasta gure arrakasta izango da».

Lehendakaritza berri hau makroeskualde atlantiko baten defentsan kokatzen da, Atlantic Cities 2008an Donostiako Gutuna aldarrikatu zenetik defendatzen ari den lurralde-lankidetza indartuko proiektua.

Era berean, Euskal Lehendakaritza honek hurbiletik jarraituko du korridore atlantikoaren garapena. Azkenik, Elkartearen 2021-2023 Plan Estrategikoaz arduratuko da.

(informazio+)

EB 2024: ESTRATEGIA

> Eibarko Climathonek bultzada eman zion EBko Itun Berdeari buruzko profesionalen prestakuntzari, Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Europako Teknologia Institutuko Climate-KIC Komunitatearen laguntzarekin

Climathon Eibar, Eibar Klima Lab kolektiboak eta Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolak (Eibarko Atalak) bultzatutako ekimena da. Bertan, Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Gradua eskaintzen da. Aurten, jarduera Europako CLIMATHON sarearekin koordinatuta antolatuko da, EIT Climate-KICek (Europako Teknologia Institutuko Klimaren Berrikuntza eta Ezagutzarako Komunitate edo Kidegoak) bultzatuta eta Alkatetzen Itunak (Covenant of Mayors) babestuta.

Ingurumeneko diputatu José Ignacio Asensiok azpimarratu zuen, alde batetik, Climathon bultzada bat dela profesional berriak Itun Berdearen aginduetan prestatzeko, eta, bestetik, enpresentzako aukera bat deskarbonizazio-estrategietan lerrokatzeko eta beren negozio-ereduetan trantsizio ekologikoa bizkortzeko.

(informazio+)

> Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta GHK Hondakinen Kontsortzioak bilera egin zuten Europako Zuzentarauen helburu berriak betetzeko eta balorizazio-proiektuak Next EUren bidez finantzatzea aztertzeko

Topaketa honetan, erakunde horiek dituzten lehentasunak aztertzeko aprobetxatu da, Euskadin hondakinak kudeatzeko helburu berriak betetzeko eta Gipuzkoak bultzatu nahi dituen lehentasunezko proiektuak aztertzeko. Helburua da sinergiak bilatzea, Kudeaketa Plana azkarrago betetzeko eta Europako Zuzentarauen helburu berriak betetzeko.

Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak udal-hondakinen balorizazioan bultzatu nahi dituen hurrengo proiektuak eta horien tratamenduak sortutakoak berrikusten aritu dira, baita Eusko Jaurlaritzak EUSKADI NEXT planaren barruan berreskuratze-funtsekin aterako duen laguntza-lerro berriak horiek finantzatzeko aukerak ere.

(informazio+)



> EKONEKek, Errenterian, industria-eskalan lehortzeko teknologia garatzen du produktu berriei begira, EBren Horizon 2020 esparru estrategikoak finantzatutako esnekien balorizazio-proiektu batetan bezala

Gipuzkoako enpresak produktu likidoak eta pasta modukoak, hauts edo pikortatu bihurtzen ditu lehortzeko soluzio berritzaileen bidez, eta, horri esker, enpresek beren produktuak berrasma ditzakete eta ekoizpen-fluxua optimizatu.

EKONEKek Europa mailako I+G proiektuetan ere parte hartu du. 2019an, adibidez, DAINME-SME proiektuarekin hasi zen, Horizon 2020 programaren barruan. Proiektu horren helburua da Mediterraneoko herrialdeetan esnekien sektoreko ETEen ekonomia zirkularra hobetzea, teknologia berritzaileak sartuz eta esneki baliotsu berriak garatuz.

(informazio+)

> AZTIk indartu egin du Europar Batasunean arrantza-arloko aholkulari zientifiko gisa duen presentzia ICES eta ICCAT batzordeetan, eta EBko Arrantzako Batzorde Zientifiko Tekniko eta Ekonomikoan jarraitzen du

Dorleta García ikertzailea Itsasoa Esploratzeko Nazioarteko Kontseiluko (ICES) Aholku Batzordeko presidenteorde izendatu dute.

Gainera, Haritz Arrizabalaga ikertzailea Atlantikoko Atuna Kontserbatzeko Nazioarteko Batzordeko (ICCAT) Ikerketa eta Estatistika Batzorde Iraunkorreko presidenteorde izendatu dute.

Izendapen horiek euskal zentroaren kalitate zientifikoaren aitorpen berri bat dira, eta AZTIko ikertzaileak nazioarteko beste erakunde batzuetan (EBko Arrantzako Batzorde Zientifiko, Tekniko eta Ekonomikoan, esaterako) duten presentzia nabarmenari gehitzen zaizkio.

Hala, Europar Batasuneko Arrantzarako Batzorde Zientifiko, Tekniko eta Ekonomikoaren (STECF) % 10, EBri arrantza-arloan aholkuak emateaz arduratzen den erakundea, AZTIko adituek osatzen dute, eta mugarri horrek erakunde horretan ordezkaritza handiena duen ikerketa-zentro bihurtu du erakundea.

Gainera, AZTIko langile zientifikoak nazioarteko batzordeen buru dira, eta horien artean azpimarratzekoa da Indiako Ozeanoko Atunaren Batzordearen (IOTC) Lehendakaritza Zientifikoa. Zentroak Europako Ingurumen Agentziaren Batzorde Zientifikoan ere parte hartzen du.

Era berean, erakundeko langileak Euskal Autonomia Erkidegorako merkataritza-interesa duten espezieen Europako ebaluazioak koordinatzen ari dira, ICESen esparruan.

(informazio+)

> Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astea: Aldundiak gizarteratzeko jardunbide egokiak partekatu ditu "desberdintasun sozialei aurre egiteko", eta Gipuzkoako hainbat eragilek beste foro batzuetan parte hartu dute

Foru Aldundia hirugarren sektoreko 140 profesional baino gehiagorekin bildu zen Donostian, helburu horrekin, Kursaalen antolatutako ekitaldi batean, gizarte-politikei buruzko informazio-zentroaren eskutik.

Euskalitek antolatutako kudeaketa aurreratuaren Europako astearen barruan kokatzen diren jardunaldi horien bidez, 2018tik 50 esperientzia inguru ikusarazi dira, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen gizarteratzearen eta arretaren arloan egindako lanaren emaitza gisa.

Gipuzkoako beste eragile batzuek Europako Asteko ekitaldietan parte hartu zuten, Euskalitek argitaratutako programak jasotzen duenez. Orkestra edo Prospektiker enpleguari buruzko mahai batean egon ziren; Ibermatica, pandemia osteko beste foro batean; Artadi eta Babesten Gipuzkoa, pertsonen kohesioari eta motibazioari buruzko beste batean; Gipuzkoako Ganberak, bestalde, digitalizazio industrialari buruzko ekitaldi bat antolatu zuen Donostian.

(informazio +)

> Euskal kooperatibismoaren topaketa bat izan da Donostian, EBko Batzordeko eta Legebiltzarreko ordezkariekin, eta, oro har, Europako gizarte-ekonomiako ordezkariekin

Donostia, Denon Artean Sariaren banaketa dela eta, Espainiako eta Europako gizarte-ekonomiaren topagune bihurtu da urriko lehen astean. Urriaren 5etik 7ra bitartean, hiriak gobernuko ordezkariak, europarlamentariak, Europako komisarioak eta nazioarteko, estatuko eta autonomiako enpresa-eredu horren ordezkari nagusiak bildu zituen. Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak (CSCE/EKGK) anfitrioi lanak egin zituen Espainiako eta Europako gizarte-ekonomiako erakunde garrantzitsuen jarduera guztietan, baita Europako Parlamentuko gizarte-ekonomiako taldeartekoan ere.

Europako gizarte-ekonomiak ere ekitaldi nabarmena izan zuen Denon Artean sariaren testuinguruan. Salbuespen gisa, Europako Parlamentuko Gizarte Ekonomiako Taldearteak, “Social Economy as an Industrial Ecosystem A catalyst to Build Back Better & Fairer” lelopean, Europako hainbat europarlamentari eta komisario bildu zituen ekitaldi hibrido batean.

Ekitaldian honako hauek parte hartu zuten, besteak beste: Thierry Breton, Europako Barne Merkatuko komisarioa; Nicolas Schmit, Lan eta Gizarte Eskubideen Europako komisarioa; Juan Antonio Pedreño, CEPES eta Social Economy Europe erakundeetako presidentea, eta europarlamentuko eta Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuko ordezkariak.

Besteak beste, Gizarte Ekonomiarako Europako Ekintza Plana landu zen, urtea amaitu baino lehen onartuko dena, enpresa-eredu horrek Europan duen potentziala ezartzeko eta hura modu bidezkoagoan berreraikitzen laguntzeko aukera gisa.

(informazio +)

> Gipuzkoak BEGen isurketak % 31 murriztu ditu 2005etik, IHOBEk argitaratutako azken inbentarioaren arabera, eta EBko Legeak ezarritako helburuaren abian dago LIFE Urban Klima, Ekiolak edo Hidrogenoaren Estrategiarekin

Epe luzeko azterketan ikus daitekeenez, hiru lurraldeek bilakaera oso ona izan dute 2005az geroztik: Arabak % 20 murriztu ditu isurketak, Bizkaiak % 26 eta Gipuzkoak % 31. Azken urteari dagokionez, Euskadiko gas horien inbentarioak ondorioztatzen du Euskadiko isurketa guztien % 51 Bizkaiari dagokiola, % 31 Gipuzkoari eta % 17 Arabari. Biztanleko emisioei dagokienez, ordena desberdina da: isurketa handienak Araban gertatzen dira (9,3 tona CO2 baliokide biztanleko), ondoren Bizkaian (8,4 t/pertsona, Euskadiko batez bestekoa bezala) eta, azkenik, Gipuzkoan (8,1 t/pertsona).

Garraioaren sektoreko emisio handienak Araban eta Gipuzkoan gertatzen dira, bi lurraldeak zeharkatzen dituen N-1 errepideak baldintzatuta. Erregistratutako azken urtean (2019), Gipuzkoak bide positiboarekin jarraitzen du: biztanleko emisio gutxien dituen lurraldea da (8,1 t/pertsona) eta, gainera, % 10 jaitsi ditu. Luzera begiratuz gero, 2005etik hona emisioak gehien jaistea lortu duen lurraldea da. Gipuzkoan, txostenaren arabera, isurketak gehien eragiten duten hiru sektoreak garraioa (% 47), energia (% 18) eta industria (% 19) dira.

EAE osoak Europar Batasuneko berotegi-efektuko gasen isurketa guztien % 0,5 ekartzen du, eta EBa da klima-aldaketaren aurkako borrokaren liderra. 2021eko apirilean, Klimaren Europako Legea onartu zen. Lege horren bidez, Europak 2050era arte klimaren neutraltasuna lortzeko konpromisoa hartu zuen, eta 2030erako berotegi-efektuko gasen isurketa garbiak gutxienez % 55 murrizteko helburua ezarri zen, 1990eko mailekin alderatuta. 2020rako, ezarritako helburua % 10ekoa izan zen. Euskadik, 2019an % 11ko murrizketarekin, urtebete lehenago bete zuen estatu kideen helburu hori.

Hala ere, beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzak hartutako neurri eta konpromisoekin jarraitzea. 2019ko uztailaren 30ean, azken inbentario horren erreferentzia-urtean, Larrialdi Klimatikoaren Deklarazioa onartu zen. Gainera, une honetan konpromiso anbiziotsuagoak bilatzen ari dira klimaren arloan, etorkizuneko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legearen bidez eta horrekin batera joango den planaren bidez. Horrez gain, beste proiektu batzuk ere ari dira bilatzen, hala nola LIFE Urban Klima 2050 (Europako Batzordeak kofinantzatzen du eta hogei bat euskal erakundek laguntzen dute), Hidrogenoaren Euskal Estrategia edo energia iraunkorra sortzeko Ekiola bezalako ekimenak.

(informazio +)



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> Berotegi-efektuko gasen euskal inbentarioa, lurraldeka (IHOBE)

Inbentarioak Gipuzkoako igorle zehatzek murrizketan duten eragina nabarmentzen du: ikatz-zentrala, siderurgia, industria, nekazaritza, abeltzaintza, hondakinak, garraioa edo zerbitzuak.

(informazio+)

> EBko berrikuntza teknologikoko misio berriei buruzko informazio-fitxak: klima-aldaketa, minbizia, ozeanoak, lurzoruak eta isuri garbirik gabeko hiri adimendunak

(informazio+)

> Europako Batzordearen komunikazioa, EBren gobernantza ekonomikoa berrikusteari buruzkoa

(informazio+)

> Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Euskal Plan Estrategikoak 13 milioi euroko aurreikuspena aurreikusten du Next Generation funtsetatik

(informazio+)

EUROPAKO DEIALDIAK

> Horizon Europe - Europako bikaintasun-ekimena (IEE): bikaintasun-gaitasuna indartzea goi-mailako hezkuntza-erakundeetan (GHI) eta inguruko ekosistemetan. HORIZON-WIDERA-2021-ACCESS-05

- Sare eta ekosistema lokalak indartzea
- Lankidetza GHIekin loturiko erakundeeki
- 2 GHI edo gehiago EBko ekialdeko zabalkunderako herrialde baten edo batzuetakoak, proiektu bakoitzeko
- Gutxienez 2 estatu kidetako 2 erakunde bazkide, (ez GHI) edo gehiago, proiektuko.
- Ekintzak: plan estrategiko koEragileak diseinatzeko eta hastapen fasean ezartzeko
- Mota aukerak: modernizaziokoak, azterketa-kasuak, proiektu pilotuak, etorkizuneko “europar unibertsitateak” sortzeko prestakuntza…
- Lankidetza-ereduen “bilduma” bat elikatzea
- Lankidetzarako oztopoak aztertzea
- Europako Hezkuntza eta Ikerketa Espazioen arteko sinergiak erraztea
- Aurrekontua: 30 milioi euro

(informazio +)

> ERC Synergy Grant (Europako Ikerketa Kontseiluaren Sinergien Beka) ERC-2022-SYG

- Laguntzako ikertzaileentzako bekak
- 2 eta 4 ikertzaile nagusi bitarteko taldeei laguntzea
- Berrikuntza-lerro berritzaileak, hainbat eremuren arteko hibridoak
- Munduan erreferentzia-puntu izan daitezkeen ikerketak
- Bi ikertzaile moten partetik, aurreko puntuen frogagarritasuna
- Aurrekontu orokorra, 297 milioi euro

(informazio +)

> Horizon Europe. Europako enpresen eskalagarritasun-potentziala handitzea: konektagarritasuna EBko berrikuntza-ekosistemen barruan eta mundu-mailako beste batzuekin, eta genero-berdintasunerako ekintzak ekosistemetan. HORIZON-EIE-2021-SCALEUP-01, -02 eta 03

- Bide sinesgarriak honakoak hobetzeko:
- 01. Sareen/ekosistemen konektibitatea, sorkuntzan ari diren zientzia-arloetako berritzaileei laguntza handiagoa emateko (Horizon CSA, koordinazioa eta laguntza)
- Ekosistemen arteko lankidetza (mundu-maila) – Horizon RIA – Ikerketa eta Berrikuntza
- Genero inklusibitatea – Women Tech EU – Horizon CSA (koord. eta laguntza)
- Aurrekontua: 13,75 milioi euro

(informazio+)

> Horizon Europe. Marie S. Curie Doktoretza Sareak. HORIZON-MSCA-2021-DN-01

- Giza kapitala hobetzea ikerketan eta berrikuntzan
- Potentzial handiko doktoregaien prestakuntza
- Erakargarritasuna eta baldintza hobeak ikerketaren lanbide - ibilbidetan
- Talentuaren eta jakintzaren zirkulazio handiagoa ikerketan eta berrikuntzan
- Sektore, diziplina eta estatuen arteko mugikortasuna
- EBren erakargarritasuna punta-puntako ikerketarako
- EBko ikerketaren eta berrikuntzaren kalitate eta lehiakortasun iraunkor handiagoa
- Erakundeen arteko lankidetza iraunkorra (akademikoak eta bestelakoak).
- Espiritu zientifiko irekia, berritzailea eta ekintzailea
- Aurrekontua: 402,95 milioi euro

(informazio+)

"EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN" webgunea